

## GAZTEENTZAKO MATERIALAK

### “ERDU - TE INVITO”

#### 1. Sarrera (oinarriak)

- Kanpaina honetan enplegu inklusiboa nabarmendu nahi izan da, eta “komunitate abegitsuaren” ideiarekin jarraituz, inklusioa sustatzen duen komunitatea izaten irakatsi nahi dugu, pertsona guztion gaitasunen garapenean lagunduz. Harrera-komunitate batek prozesuetan laguntzen du eta pertsonen gorabeheri arreta ematen die.
- Ekonomia solidarioa beste ekonomia mota bat da, ekonomia soziala, elkarrekin lantzen den ekonomia, pertsonen duintasunaren ikuspegitik enplegu inklusiboa sustatzen duena, pertsona guztien garapena kontuan izan eta zailtasunak dituzten pertsoneri laguntzen dieten komunitateak eraikitzeko xedea duena.

#### 2. Dinamika

Haurrei lamina eman eta bi irudien arteko zazpi desberdintasunak aurkitzeko esango diegu. Taldeka edo banaka egin daiteke.

Zazpi desberdintasunak:



Behin aurkituta, irudian ikusten dugunaren gainean hausnartuko dugu:

- Zer ikusten da irudian?
- Zerk ematen dizu atentzia? Ekonomia solidarioaren kartelean fijatu ez badira, galdetu: entzun duzue zerbait Ekonomia Sozial Solidarioaren inguruan? Badakizue zer den?
- Zein lan agertzen dira irudian? (Bideratzailearentzat: Pertsonen beharrezan erantzuten dieten enpleguak: Jatekoa, arropa, zaintza, etxebizitza, aurrezkia... pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia)
- Uste duzue lan horiek onura ekarri ahal diotela auzoari? Zein onura edo balio izan daitezke? (Bideratzailearentzat: Lankidetzak, ingurumenarekiko errespetua, zaintza, pertsonen gaitasunen garapena, boluntariotzaren bidezko lana, pertsoneri laguntzea...)

Ekonomia solidarioa eta horren inguruko balioak zer diren azalduko zaie. Nola lortu dezakegun bazterkeria edo zailtasun egoeran dauden pertsonen lana lortzeko aukerak izatea, eta horrekin komunitate osoari onura ekartzea (herria, auzoa...). Azalpenaren ostean, denbora bat eman ahal zaie beren ustez irudian falta dena marrazteko. Marrazkia koloreztatu ere egin dezakete. (Bideratzailearentzako gida kontsultatu).

### 3. Otoitza

Dinamikan partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

O, Jainkoa! Aldatu gure bihotza.

Jauna, lan prekarioak dituzten

Eta duintasunez bizi ezin dutenen alde

Eskatu nahi dizugu.

Lanik ez dutenen alde, batez ere denbora luzea

daramatenen alde,

Aurki dezatela motibazioa eta itxaropena, eta senti  
dezatela ez daudela bakarrik borroka honetan.

Lan duinik ez duten eta beren bizi- proiektua burutu  
ezin dutenen gazteen alde eskatu nahi dizut,

Denon artean, ikuspegi aldaketa eragiteko.

Egiturak eta erakundeak aldatzeko lan egiteko,

Pertsonen zerbitzura egon daitezen; batez ere, pobretuenen zerbitzura.

Bestelako esperientzia batzuk eraikitzen ikasteko; beste lan mota bat,

Beste ekonomia bat, beste mundu bat posible dela erakusteko.

Elizak pobretuen aldeko lanean jarrai dezan,

Ebanjelioa iragarritz...

Ez dezagun zailtasunen aurrean amore eman, eta elkarrekin borroka gaitezen



## BIDERATZAILEAREN GIDA

Dinamikaren helburua da gazteek lan duin eta inklusiboaren inguruko hausnarketa egitea, ekonomia eredu sozial eta solidario bat irudikatzea. Enplegu duin eta inklusiboa sustatzeko ekimenen aspektu eta balioetako batzuk:

- Onura soziala, pertsonen garapena eta bizi kalitatea.
- **Ondasun eta zerbitzu onuragarrien** garapena, pertsonentzako, ingurumenerako eta gizararentzako kaltegarriak direnak alboratuz.
- **Enplegu duin, bidezko, dezente eta inklusiboan** sorkuntza.
- **Autonomia, sormena, parte-hartzea, erantzukidetasuna, lankidetzeta eta aukera berdintasuna.**
- **Bidezko soldata proportzionalak.**
- **Ingurumen iraunkortasuna** zaintzea.
- Babesgabetasun egoeran egoteagatik laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen garapena bideratzea, honakoen bidez: prestakuntza, orientazioa, enpresen bitartekaritza, autoenplegua eta bide-laguntza.
- **Irabazi asmorik gabe**, irabaziak enplegu sorkuntzara, jarduera ekonomikoaren hobekuntzara eta inguruko gizarte proiektuen garapenera bideratuz (auzoa, herria, hiria...).

Irudian, Caritas Bizkaiak garatu eta babesten dituen gizarte ekonomiako enpresak agertzen dira:

- Arropa, zaintza (**Zaintzalan**), garbiketa eta abarren enpresa taldea **Koopera**
- Catering: **Lapiko**
- Eraikuntza eta mantentze-lana: **Procoman**
- Bidezko merkataritzako produktuak: **Kidenda**
- Nekazaritza ekologikoko otzarak, kontsumo taldeen bidez: **Biozaki**
- Banka etikoa: **Fiare**
- Gainera, beste sektore batzuetako enpresak ere aurki daitezke REAS sarearen Merkatu Sozian (*Red de Economía Alternativa y Solidaria*), hala nola aseguruak, marketina eta komunikazioa, ikus-entzunezkoak, osasuna, heziketa, aholkularitza, ikerketa, teknologia berriak, higiezinak, finantzak...

## DEFINIZIOAK:

Ekonomia soziala pertsonak, ingurumena eta garapen iraunkorra aintzat hartzen dituen ekonomia-ikuspegia da.

Enplegu inklusiboa: enplegua lortu nahi duten pertsona guztiei aukera ematean datza, lan-eremu duin batean baldintza bidezkoak garatuz.

Aurkitu ezazu zazpi desberdintasunak.

